



Arartekoaren 2013ko apirilaren 8ko ebazpena. Horren bidez, Areatzako Udalarri gomendatzen zaio furgoneta baten titularrari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarengatik (TMIZ) igorritako hainbat ordainagiri berrikus ditzan eta zerga hori arautzen duen udaleko zerga-ordenantzaren 6.2.a) artikuluan jasotako xedapena baliogabetu dezan.

Aurrekariak

1. Interesduna (...) ibilgailu baten titularra da eta horregatik, (...) udalerrian, kamioi gisako zergak ordaindu izan ditu (...) ekitaldira arte, karga dela-eta. Lekuz aldatu eta etxebizitza Areatzan finkatzerakoan, toki erakunde horrek Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) igorri zion, ibilgailua furgoneta gisa sailkatu zuen eta turismo gisa ordainarazi zizkion zergak, zerga-potentzia kontuan hartuta. Zehazki, 2011ko bidalitako ordainagiriak *“furgoneta 16-19, 999”* legenda zeukan.

Erreklamatzailerak ez zegoen ados zergaren ondorioetarako sailkapen horrekin, beraz, 2011ko irailean, kalifikazio zaileko erreklamazio bat aurkeztu zuen Areatzako Udalaren aurrean, TMIZ arautzen duen Zerga Ordenantzaren 8.2. artikuluan jasotako xedapena aplikatu zezaten, izan ere, horren arabera, 525 kilogramo baino gehiagoko karga erabilgarria garraiatzeko baimena duten furgonetek kamioi gisa ordaintzen zituzten zergak.

2. Gure informazio-eskaeraren aurrean, Areatzako Udalak erreklamazioa gaitzetsi zuen eta zergaren errolda Areatzako Udaleko Iragarki-oholean 15 egunez jendaurrean egon zela adierazi zuen (2011ko abuztuaren 2ko 146. zk.ko BAO), interesdunek aztertu zezaten eta egokitzat jotako erreklamazioak sustatu ahal zituzten. Epe horretan zehar ez zen inolako erreklamaziorik egin.
3. Kexaren izapideekin aurrera jarraitzeko helburuarekin, berriro ere Areatzako Udalarekin harremanetan jarri ginen, bidalitako ebazpenean ez baitziren jorratu ibilgailua furgoneta gisa sailkatzetik sortutako ondorioak.

Aurreratuko dugu ibilgailu baten karga erabilgarria baimendutako gehienezko pisuaren eta haren tararen arteko aldea besterik ez dela. Horrela bada, ibilgailuaren Azterketa Teknikoko Txartelaren arabera, horrek 3000 kg.ko gehienezko pisua zeukan eta 2382 kg.ko tara, beraz, kamioi gisa ordaindu beharko lituzke zergak, 525 kg baino gehiagoko karga garraiatzeko baimena baitzuen.

4. Haren erantzunean, toki erakunde horrek azpimarratu zuen zerga ordenantzak jasotzen zuen salbuespena aplikatzen zela furgonetaren erabilera turismoarena bezalakoa ez zenean, hau da, etxekoa ez den pertsonen garraiorako erabiltzen zenean eta kargarako erabiltzerakoan.



Gai horren inguruan, zehaztu genuen zerga ordenantzak ez zuela inondik inora ibilgailuaren erabilera aipatzen, beraz, ibilgailua furgoneta gisa sailkatu ondoren, 8.2. artikulua xedapena ordenantzaren zehaztutako izaera objektiboarekin aplikatu behar izan zen.

5. Bestalde, azken txosten-eskaera hori egitean antzeman genuenez, 2012ko urtarrilaren 1ean Areatzan TMIZ arautzen zuen zerga ordenantzaren idazketa berri bat sartu zen indarrean, furgoneten zerga-ordainketan eragina zuena. 6.2.a) artikulua furgoneten karga-ahalmena handitzen zuen, zergak kamioi gisa ordaindu ahal izateko eta ibilgailua 1.000 kilogramo karga erabilgarri baino gehiago garraiatzeko baimenduta egon zedin eskatzen zuen.
6. Ibilgailu mota ezberdinen eta zerga horren tarifak aplikatzeko arauen zehaztapena, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauaren 4.3. artikulua xedatzen duenaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari Dagokio. Printzipioz, ez genekien Bizkaiko Foru Aldundiak kontu horren inguruko araudirik ezarri zuenik. Hala eta guztiz ere, kexaren alderdi hori ere argitzeko helburuarekin, berriro ere Areatzako Udalaren lankidetzara eskatu genuen, TMIZren gaineko udal ordenantzaren 6.2.a) artikuluan jasotako xedapena gaineratzeko oinarritzat hartu zuen estaldura araua zein izan zen adieraz ziezagun.
7. Erakunde honetan Areatzako Udalak bidalitako erantzuna jaso berri dugu eta bertan zera azaltzen da: *“la Ordenanza Fiscal por la que se regula el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica del Ayuntamiento de Areatza, dentro del marco normativo determinado por la Norma Foral reguladora del Impuesto y su normativa de desarrollo introduce las determinaciones necesarias para la aplicación del impuesto en su término municipal amparándose en la potestad normativa que legalmente se le atribuye con respeto a la Autonomía Local”.*

Gogoetak

1. Kexaren planteamendua jorratu behar dugu, tokiko erakunde honek TMIZ ordain dadin dituen ahalmenei jarraiki.

Azpimarratu behar da administrazio zuzenbidearen arloan, legezkoitasun positiboaren printzipioak agintzen duela. Printzipio hori bereziki oinarritzakoa da zergen eremuan.

Horrek esan nahi du administrazio publikoen egintza eta xedapen guztiek, denek salbuespenik gabe, alde aurretiko lege batean babes egokia eduki behar dutela, egintza eta xedapen horiek emateko botere nahikoa ematen edo aitortzen diena, administrazioaren jarduketara oro legearen eta zuzenbidearen mende egon behar dela, eta ez dagoela salbuesitako espaziorik zeinetan administrazioak botere ajuridiko eta libre gisa jardun ahal duen. Hala adierazten



du Espainiar Konstituzioaren 103.1 artikulua: *“Herri administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak eta (...) dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.”*

Ez da administrazio jarduketarik horri ihes egin ahal dionik. Horrek esan nahi du arauan berriazko gaikuntza egon behar dela zergaren ordainketa adierazi den moduan eskatu ahal izateko.

2. 2011. urtean, Areatzako Udalak onetsitako TMIZren zerga ordenantzak zera azaltzen zuen 8.2. artikuluan:

“Ibilgailu-mota zehazteko, arauz xedatuko dena beteko da, horrez gain hurrengo arau hauek ere kontuan hartuko direlarik:

a) Furgoneta gisa, jesarlekuak eta kirstalak kenduz, atteetako tamaina edo erakaria den eredia funtsean aldatzen ez duten eraldaketan bidez turismo-ibilgailu bat pertsona eta gauzen garraiorako egokitzearen emaitza hartuko da. Furgonetek turismo bezala ordainduko dute zerga, potentzia fiskalaren arabera, hurrengo kasuetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barne, garraiatzeko gaiturik badago, autobus modura ordainduko de zerga.

Bigarrena. Ibilgailuak karga baliagarriko 525 kg baino gehiago garraiatzeko baimena badu, kamioi modura ordainduko du.”

Areatzako Udalak aitortu du ibilgailua furgoneta bat dela, baina ez du aintzat hartzen bere zerga ordenantzak jasotzen duen salbuespena, izan ere, toki erakunde horrek defendatzen duen moduan, salbuespena aplikatzen da: *“furgonetaren erabilera turismoarena bezalakoa ez denean, hau da, etxekoa ez den pertsonen garraiorako erabiltzen denean eta kargarako erabiltzerakoan”.*

Erakunde hau ezin da ados egon aurkeztutako argudiaketaekin eta Areatzako Udalak, erreklamatazileari emandako TMIZko ordainagirian, (...) matrikulako (...) ibilgailua furgoneta gisa kalifikatu zuela azpimarratu behar du.

Kalifikazio horri, 2011. urteko Areatzako Udaleko TMIZko zerga ordenantzak alde batera utzi ezin diren hainbat ondorio lotzen zizkion.

Ordenantzaren 8.2.a) artikulua ez zuen inondik inora ibilgailuaren erabilera aipatzen; alderantziz, furgonetei kalifikazio bat esleitzen zitzairen, TMIZn tarifa bat aplikatze aldera. Artikulu horrek aipatzen zuen orokorrean furgonetek turismo gisa ordainduko zituztela zergak, guztiz objektiboki zehaztuko ziren bi kasuetan izan ezik: 525 kg baino gehiagoko kargarako edukiera (kamioi gisa ordainduko lukete), 9 pertsona garraiatzeko prest egotea (autobus gisa ordainduko lukete).

Ibilgailuaren karga erabilgarria ez da baimendutako gehieneko pisuaren eta haren tararen arteko aldea besterik. Horrela bada, furgoneta horren Azterketa



Teknikoko Txartelaren arabera, horrek 3000 kg.ko gehienezko pisua zeukan eta 2382 kg.ko tara, beraz, kamioi gisa ordaindu beharko lituzke zergak, 525 kg baino gehiagoko karga garraiatzeko baimena baitzuen.

Zerga legezkotasunaren printzipioak, kasu honetan, ordenantzaren edukiak biltzen dituen xedapenen araberrako tarifa aplikatu behar izatea eskatzen du. Tokiko erakunde horrek xedapen hori mantentzen zuen 2011ko ekitaldiari zegokion bere zerga ordenantzan, beraz, ondorioz, hitzez hitzeko edukiaren arabera aplikatu behar da.

Zentzu horretan, egokitzat jotzen dugu Sevillako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak 2004ko apirilaren 21eko Epaian (JUR\2004\129440) bildutakoa adieraztea, kexa honen helburuaren atzekoa delakoan:

“El Ayuntamiento sostiene que, para tributar como camión, debería acreditarse que el vehículo se destina principalmente a actividades comerciales o profesionales de su titular. No podemos estar de acuerdo con este planteamiento. La exigencia de que se acredite que el vehículo se utiliza para actividades comerciales de su titular es un requisito añadido por la Administración municipal que, sin embargo, no se desprende de la redacción que esa misma Administración municipal ha dado a la ordenanza reguladora del impuesto. La única exigencia que se desprende de la normativa aplicable (vinculante no sólo para los administrados sometidos al impuesto, sino también para el municipio que lo recauda), es que el vehículo “esté autorizado” para transportar más de 525 kg de carga útil; y el vehículo de la actora lo está conforme a su faja técnica, sin que sea, además necesario, desde el tenor de la norma aplicable, que la actora destine el vehículo a actividades profesionales o de transportes. Este requisito resulta ser un exceso no exigible a tenor de la redacción dada por el propio Ayuntamiento a su ordenanza fiscal”.

Horregatik, ibilgailua furgoneta gisa kalifikatu ondoren, 8.2. artikularen xedapena aplikatu behar izan zen ordenantzan zehazten den izaera objektiboarekin. Beraz, igorritako likidazioa ofizioz baliogabetzea eta berri bat ematea dagokio, ibilgailu hori kamioi gisa sailkatuta.

Antzeko zentzu batean mintzatzen da Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusia (administrazioarekiko auzien sala, 1998ko ekainaren 15eko epaian (JT\1998\1054) zera onartzerakoan: *“en el supuesto enjuiciado, como la furgoneta en cuestión está autorizada para el transporte de más de 525 kg de carga útil, ha de tributar como camión y no como turismo, en acatamiento, precisamente, de la Ordenanza Municipal examinada”.*

3. 2012ko urtarrilaren 1ean TMIZ arautzen duen zerga ordenantzaren idazketa berria sartu zen indarrean Areatzan. Testu berrian, furgoneten zerga ordainketa jorratzen da 6.2. artikuluan, hitzez hitz zera azaltzen denean:



"Ibilgailu-mota zehazteko, arau bidez ezartzen denari jaramon egingo zaio, eta gainera kontuan hartuko dira ondoko arauak ere:

a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: pertsonak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, zenbait eserleku eta kristal kendu zaizkienak, ateen neurriak edota kokaera aldatu, eta bestelako aldaketak egin zaizkienak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu gabe. Furgonetengatik, turismoak balira bezala ordainduko da Zerga, euren zerga-potentziaren arabera, ondoko kasuetan izan ezik:

Lehenengoa: Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barne, garraiatzeko gaiturik badago, Zergak autobusa balitz bezala kargatuko du.

Bigarrena: Ibilgailuak 1.000 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badu, Zergak kamioia balitz bezala kargatuko du."

4. Kontzertu ekonomikoak aitortzen du TMIZ lurralde historikoetako erakunde eskudunek emandako arauen arabera arautuko dela, zirkulazio baimenean jasotako helbidea bere lurraldeko udalerrri bati dagokionean (41.art.)

Eskumen horren erabileran, Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusiek Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Araua onetsi zuten. Arau horrek, IV. kapituluan, zerga horren kuota arautzen du eta, zehazki, honakoa aipatzen du: zerga Foru Araua zehazten duen tarifa-laukiaren arabera arautuko da (1. atala), lauki hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren bidez aldatu ahalko da (2. atala) eta *"Erregelamendu bidez zehaztuko da ibilgailu mota bakoitzaren kontzeptua eta tarifak ezartzeko arauak."*

2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2012 eta 2013rako neurri iragankorrak eta bestelako zerga-neurriak onesten dituen otsailaren 29ko 1/2012 Foru Arauaren onespeneren babesean, 3. atal horri amaierako gehigarri bat erantsi zaio: *"Zerga honi dagokionez, autokarabanek turismo moduan tributatuko dute."*

Zergaren inguruan udalak dituen eskumenak 4. artikuluan horrek ere zehazten ditu 4. atalean eta hurrengoetan. Horren arabera, udalek foru arauan finkatutako kuotak handitu ahalko dituzte koefizienteak aplikatuz eta foru arauak berak berariaz zehazten dituen hobariak aplikatzeko beharrezkoak diren baldintzak eta ezaugarriak arautu ahalko dituzte.

Hau da, arauen garapena eta, beraz, ibilgailu mota ezberdinen kontzeptua eta tarifak aplikatzeko arauak zehazteko eskumena lurralde historikoko erakundeei dagozkie eta ez toki erakundeei, Areatzako Udalak adierazi duen moduan; beraz, zerga ordenantzak 6.2.a) artikuluan jasotako zehaztapenak toki



erakunde horren eskumenen gehiegizko erabilera dakar, une honetan foru araudian estaldurarik ez duena.

Horri buruz, Ogasunak arautzeko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 7. artikulua jasotzen dituen xedapenak ekarriko ditugu hona. Haien arabera:

“1. (...) Era berean, udal zergei buruzko foru arauetara eta halakoak garatzeko xedapenetara egokitu beharra izango dute toki erakundeek.

(...)

2. Zerga-ordenantzen bitartez, toki erakundeek beren barruko antolaketa- eta funtzionamendu-araubidearen eredura egokitu ahal izango dute aurreko paragrafoaren lehen lerroaldean aipaturiko arautegia, baina egokitzapen hori ezin izan daiteke arautegi horren eduki materialaren aurkakoa.”

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Gomendioa

1. Areatzako Udalak erreklamatzailari igorritako 2011 ekitaldiko TMIZren ordainagiria ofizioz indargabetu dezan eta berri bat bidali dezan furgoneta horren zerga-ordainketan oinarrituta, karga-ahalmena kontuan hartuta.
2. 2012ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoen zerga-ordenantzaren 6.2.a) artikuluan jasotako xedapena baliogabetu dezan, izan ere, toki erakunde horrek ez du arauzko eskumenik ibilgailu mota ezberdinen kontzeptua eta tarifak aplikatzeko arauak erregulatzeko.
3. Hurrengo ekitaldietan zehar ibilgailuaren zerga-ordainketa berrikus dezan.